

## Euskararen berri OLAtu gainean

### 2019KO APIRILEKO ALBISTEAK

#### **'Klika! Instalatu eta elika! Euskarak behar du herri honen sistema eragilean'**

Euskara gaur egun arte, ta Gasteizaino KORRIKA,

ekarri dugunoi: biba, gora, eutsi, goza...

...KLIKA! Hizkuntza ez da edukitzekoa.

Lizuna egiten zaio barruan gordeta, lika.

Beraz, KLIKA! Instalatu eta elika!

Euskara, ez da euskararen gauzetarako aplikazioa.

Euskarak behar du herri honen Sistema Eragilean.

Memoria handiko lur honen hizkuntza beti eguneratua, eta software librekoa. (...)

#### **Ignacio Lekunberri: "Enpresetan euskararen alde egitea merezi du"**

Ignacio, Euskaraldian, Bilboko hamaiakako kidea izan zen. Izan ere, Mutualian euskara enpresen munduan sustatzen ari dira aspalditik: "Argi daukagu Euskal Herrian gaudela eta gure zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzeko gai izan behar garela."

#### **Euskara ikasleei gorazarre egin die Zubizarretak nobela berrian**

1875ean, Julien Vinson barnean zeraman globo aerostatikoak noranzkoa galdu eta Iruñean hartu zuen lurra. Gertaera horretatik abiatu da Patxi Zubizarreta «Julien Vinsonen hegaldia» nobelan, hura bezala euskara ikasten tematzen direnei gorazarre egiteko.

#### **Euskara bultzatzea inbertsio errentagarria da enpresentzat**

"ABBk Oartzunen duen Niessen fabrikaren esperientziak erakusten digun moduan, euskara gainontzeko hizkuntzekin berdintasunean erabili ahal izateko aukerak eta espazioak sortzen direnean, lantegi edo enpresa bateko langileen arteko kohesioa bultzatu dezakeela eta honek, gainera, merkatura ateratzen duten produktua hobetu egiten duela. Hau da, hizkuntza berdintasunaren ikuspegitik egindako aurrerapenaz gain, euskara inbertsio errentagarria izan dela enpresarentzat", nabarmendu du.

#### **96.310 herritarrek parte hartu dute zuzenean Euskaraldian Gipuzkoan**

75.572 izan dira ahobizi eta 20.738 belarriprest; "indar eta ilusio kolektibo berria" piztu du ekimenak, Imanol Lasaren esanetan

#### **Gipuzkoako Hizkuntzen Mapa AESLA Hizkuntzalaritza kongresuan**

Valladoliden, martxoaren 27tik 29ra bitartean egin den AESLA Hizkuntzalaritza kongresuaren Soziolinguistika atalean aurkeztu du Belen Urangak Gipuzkoako Hizkuntzen mapa.

